

2018/03/22an EGINDAKO EZOHICO OSOKO
BILKURA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
22/03/2018.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramón Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maria Purificación Regidor Varela
Josu Miren Ezkurdia Santamaria
Maite Uribe Beristain
Aitor Zubizarreta Alegria
Aintzane Agiriano Errasti
Nestor Arana Arexolaleiba
Joseba Iñaki Kerejeta Gorostiza
Rafael Bernal Gato

Idazkaria

Eduarne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, 2018ko martxoaren 22an, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkura aretoan, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udaltzarra, ezohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaietarako hitz egiteko. Ezingo zirela etorri jakinarazi zuten Maite Zubiak eta Edorta Barandiaranek.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 22 de marzo de 2018, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente José Ramón Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. Excusan su asistencia Maite Zubia y Edorta Barandiaran.

1.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2018ko martxoaren 16ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da. Berariaz eman da 2. eta 3. kreditu aldaketa espedienteak onartzeko Alkate erabakien berri.

2.- ARRISKUTSUA IZAN DAITEKEEN TXAKURRA ERREGISTROAN IZENA EMANDA EZ EGOTEAGATIK HARTUTAKO ZIGOR ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO BERRAZTERTZE ERREKURTSOA.

Iñigo Olazabal Cerrillo jaunaren aurka zigor espedientea instruitu eta tramitatuta bere jabetzako txakurra, STAFFORDSHIRE BULL TERRIER arrazakoa, arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal honetako erregistroan izena emanda ez izateagatik, Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 28ko bilkuran, hartutako erabakiz, 300 euroko isuna jarri zitzaion Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste larria egiteagatik.

2017ko ekainaren 23an, berraztertze errekurtsua jarri zuen Iñigo Olazabal Cerrillo jaunak, horretarako alegatuz dokumentazio guztia ez bazuen ere epe barruan aurkeztu, zati bat aurkeztua zuela, eta azkenean, falta zitzaiona ere aurkeztu zuela, eta horregatik, ezarritako isuna murrizteko eskatzen du.

Organo instrukzio-egileak egindako proposamena ikusi da eta tramitatutako espedientetik honako hauek ondorioztatzen dira:

1.- Iñigo Olazabal Cerrillo jaunari errekerimenduak egin zitzaizkion jakinarazpen bidez 2016ko urtarrilaren 18an eta 2016ko irailaren 26an, arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia administratiboa lortu eta udal erregistroan izena emateko derrigorrezko dokumentazioa aurkeztu zezan.

2.- Iñigo Olazabal Cerrillo jaunak ez zien kasurik egin errekerimendu biei, eta horregatik, zigor espedientea ireki eta zigorra ezarri zitzaion.

3.- Inkulpatuak egindako adierazpenek ez dituzte indargabetzen frogatutako egitateak eta ezta leporatutakoaren funtsa eta bere erantzukizuna ere. Arriskutsua izan daitekeen arrazako txakur baten jabe denez, behartuta zegoen txakurra eskuratu zuen unetik derrigorrezko lizentzia lortzera eta txakurra udal erregistroan inskribatzera; egin ez zituenak, nahiz eta horretarako errekerimendua egin, eta horregatik leporatu zitzaion zigorra ekarri dion arau-haustea.

Aurrekari horiek ikusita, eta Gobernu eta Finantza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- EZ ONARTZEA, erabaki honen aurrekarietan adierazitako arrazoiengatik, Iñigo Olazabal Cerrillo jaunak jarritako errekurtsua, eta ondorioz, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13.2.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretuko 20.4 artikuluan tipifikatutako arau-hauste larria egiteagatik Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 28an egindako bilkuran, ezarritako 300 euroko ZIGORRA BERRESTEA.

BIGARRENA.- Ezarritako zigorra irmoa da, eta ordaintzeko gehienez ere hilabeteko epea izango da erabaki hau jakinarazten zaion biharamunetik kontatzen hasita. Epea igaroz gero isuna ordaindu gabe, betearazpen-bidez eskatuko da.

HIRUGARRENA.- Erabakia jakinaraztea zigortuari jakinaren ganean egon dadin ea dagozkion ondorioak sor ditzan, eta adieraztea horren aurka ADMINISTRAZIOREKIKO AUZI-ERREKURTSOA jar dezakeela, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegiaren aurrean, BI HILABETEKO epearen barruan, jakinarazpen hau jasotzen denetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

3.- AURREKO URTEETAN ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Preskribatuta egoteagatik, kreditu kobraezin deklaraturata egoteagatik, bidezkoak ez izateagatik, bikoiztuta egoteagatik edo beste arrazoiren batzuegatik aurreko ekitaldietatik kobratu gabe gelditu ziren eskubideen baja onartzeko Diru Bilketa Zerbitzuak tramitatutako espedientearen berri eman da.

Aho batez ERABAKI DA Udalbatzarrari ondorengo erabaki proposamena egitea:

LEHENENGOA.- Kobratzeko dauden eskubideei baja emateko talde espedientea onartzea ondorengo taulan agertzen diren kontzeptuengatik, bertan agertzen diren subjektu pasiboetara eta bertan jasotako diru kopuruengatik:

- **kreditu kobraezinak izateagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 52.670,02 €.

| 17/10/01 etik 17/12/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|--|----------------|-------|-----------------|------------------|-----------------|------------------|--------------------|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2009 | 39 A028678 810Q | 11.060,01 | 2.212,00 | 13.272,01 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2010 | 30 A028678 820R | 11.060,01 | 2.212,00 | 13.272,01 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2011 | 31 A028678 820Q | 10.885,84 | 2.177,16 | 13.063,00 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2012 | 32 A028678 820P | 10.885,84 | 2.177,16 | 13.063,00 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| GUZTIRA | | | | 43.891,70 | 8.778,32 | 52.670,02 | |

- **Preskripzioagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 12.609,33 €.

| 17/10/01 etik 17/12/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|--|---------------|-------|-----------------|---------------|--------------|---------------|-----------------|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| A20171328 | OHZ:HIRILURRA | 2011 | 3U 0034602 110F | 200,26 | 40,05 | 240,31 | PREZKRIZIOA.GEA |
| 16.300.924L | OHZ:HIRILURRA | 2011 | 3U 5180042 110H | 196,13 | 39,22 | 235,35 | PREZKRIZIOA.GEA |
| GUZTIRA | | | | 396,39 | 79,27 | 475,66 | |

| IFK | KONTZEPTUA | URTEA | ZENBATEKOA | ZERGATIA |
|----------------|---|-------|------------------|--------------|
| 44.683.483 A | HIRIGINTZA LIZENTZIA (ZERGA+TASA) ZIGORRA KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK 1-9 SAN PEDRO BERREURBANIZATZEA KIROLDEGIKO KANTXAREN ALOKAIRUA | 2012 | 10,62 | PRESKRIPZIOA |
| A31178486 | | 2012 | 11.903,80 | PRESKRIPZIOA |
| 72.723.973 C | | 2013 | 219,25 | PRESKRIPZIOA |
| GUZTIRA | | | 12.133,67 | |

- **Bidezkoak ez izateagatik** kobratzeke dauden eskubideen baja: 222,23 €

| IZENA | KONTZEPTUA | URTEA | ZENBATEKOA | ZERGATIA |
|----------------|---|-------|---------------|------------------|
| F20025292 | HIRIGINTZA LIZENTZIA TASA. 63 ERREZIBOA | 2015 | 22,27 | 2017AN KOBRATUTA |
| F20025292 | HIRIGINTZA LIZENTZIA TASA. 49 ERREZIBOA | 2016 | 199,96 | 2017AN KOBRATUTA |
| GUZTIRA | | | 222,23 | |

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea kontuhartzaitza eta diruzaintza udal zerbitzu ekonomikoari beste arrazoiren batzuegatik preskribatutaz edo baliogabetutaz deklaraturako zorrei baja eman diezaieten kontabilitate eta diru-bilketa kontuetan.

4.- MERKATARITZA ESTABLEZIMENDU BAT IREKITZEKO DIRU LAGUNTZA EMATEA. (alokairua)

Udalbatzarrak, 2017ko martxoaren 28an egindako bilkuran, "hutsik dauden lokalak balioan jarriz merkataritza edo zerbitzu arloko establezimendu berriak irekitzeko diru laguntzak arautzeko oinarriak" hasiera batean onartzea erabaki zuen.

Oinarri horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko apirilaren 12an, eta jendaurrean egoteko epean alegaziorik aurkeztu ez zenez, behin betikotzat jo ziren beste erabakirik hartu behar izan gabe.

GINARRIETAKO 7. artikuluan jasotakoaren babesean, Alkateak diru laguntza horietarako deialdia egin zuen 2017ko maiatzaren 31ko erabakiz.

Isabel Quelle Añel andreak diru laguntza eskatu zuen, epe barruan, 2KAIN akademia dagoen lokalaren alokairua ordaintzeko.

Horretarako tramitatutako espedientea ikusi eta aztertuta, non eman beharreko diru laguntza proposamena jasotzen duen arloko teknikariak egindako txostena dagoen, Garapen Ekonomiko Jasangarria batzorde informatzaileak proposamena egin du.

Egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Isabel Quelle Añel andreaki ondorengo diru laguntza ematea 2kain akademia dagoen lokalaren alokairua ordaintzeko:

- Lehenengo urtean, 2018ko apirilaren 1etik 2019ko martxoaren 31ra arte: 75 €/hileko.

-Bigarren urtean, 2019ko apirilaren 1etik 2020ko martxoaren 31ra arte: 50 €/hileko.

Bigarrena.- Deialdia arautzen duten oinarrien arabera, onuradunak honako hauek bete beharko ditu:

1. Jarduera egitea edota diru laguntza emateko arrazoi izan diren helburuak betetzea.
2. Eskoriatzako Udalaren aurrean justifikatzea diru-laguntza ematearen edo erabiltzearen helburua eta ekintzak betetzen direla, bai eta ekintza horiek burutzeko baldintzak eta betekizunak betetzen direla ere.
3. Diru-laguntzak emateko baldintzak betetzen ari direla egiaztatzeko Udalak egin ditzakeen jarduketak onartzea.
4. Diruz lagundutako jarduera berengatik beste diru-laguntzaren bat jasoko balitz, horren berri ematea Eskoriatzako Udalari.
Beste diru-laguntza hori jasoko dela jakin bezain laster jakinarazi beharko zaio Udalari eta, edozein kasutan, Udaletik jasotako diruaren erabilera justifikatu aurretik.
5. Zerga betebeharretan, Gizarte Segurantzarekikoetan eta Eskoriatzako Udalarekikoetan egunean egotea.
6. Jasotako diruaren erabilerari buruzko egiaztagiria gutxienez bost urtez gordetzea.
7. Behar beste baimen lortzea diruz lagundu beharreko jarduera garatzeko, eta baimenon xedapenak betetzea.
8. Diru laguntza eman duen organoari jakinaraztea, diru laguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero.
9. Lokala alokatzeko diru laguntzen kasuan, jabeari egindako ordainketen agiriak hiru hilabetetik behin aurkeztea. Agiriak aurkeztu ondoren, Udalak diru-laguntza ordainduko du enpresak zehaztutako kontu korrontean.

Hirugarrena.- Lehen HIRU hilabeteko diru laguntza jabeari alokairua ordaindu zaiola egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu ondoren ordainduko da. Ondorengo diru laguntzak hiru hilabetetik behin ordainduko dira, hiruhileko bakoitzari dagokion alokairua ordaindu dela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu eta gero, eta zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Eskoriatzako Udalarekikoak egunean dituela egiaztatu ondoren.

Eskatzaileak emandako kontu korrontean egingo da ordainketa, gehienez ere hilabeteko epean dokumentazio osoa aurkezten denetik kontatzen hasita.

Laugarrena.- Gastua onartzea eta 2018ko ekitaldiko hilekoei dagozkien ordainketak egiteko agintzea (675 euro) indarrean dagoen aurrekontuko 0500.481.431.00.01 partidaren kargura, eta 2019ko (675 euro) eta 2020ko (150 euro) hilabeteetako ordainketak dagozkien ekitaldietako aurrekontuen kargura.

5.- OLAZAR JUBILATU ETXeko TABERNA-ARETO ZERBITZUA USTIATZEKO ESKUBIDEAREN ESLEIPEN KONTRATUA LUZATZEA.

Udalbatzarrak 2012ko otsailaren 16an hartutako erabakiz, Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua esleitu zitzaion Juan Luis Eraña Altuna jaunari. Kontratuaren hasierako iraupena 2 urtekoa zen.

Kontratuaren hirugarren baldintzaren arabera, epe hori 2 urtez luza daiteke, behin eta berriz jarraian, guztira 20 urte egin arte kontratuko epea eta luzapenak kontatuta. Luzapena berariaz erabaki behar da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23.2. artikulua arabera.

Kontratua kudeatzeko ardura duen zerbitzuak txostena egin du, eta bertan esaten du onuragarri ikusten duela kontratua aipatutako eperako luzatzea.

Era berean, proposatutako luzapenarekin kontratista ados dagoela jasotzen da.

Aipatutako artikulua arabera, kontratuaren luzapena kontratazio organoak erabakiko du, kasu honetan, Udalbatzarrak.

Aurrez esandakoaren arabera, Gizarte Zerbitzuetako Batzorde Informatzaileak egindako proposamenarekin bat eginda, eta udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Eskoriatzako jubilatuen etxeko taberna-areto zerbitzua erabiltzeko eta ustiatzeko kontratua, bigarren aldiz, BI URTEZ luzatzea, baldintza agiriko hirugarren baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

6.- ELORRETAN EKIPAMENDUETARAKO GORDETAKO AZALERAN ZUZKIDURA-ALOJAMENDUAK EGITEKO EUSKO JAURLARITZAREKIN SINATUTAKO LANKIDETZA HITZARMENA DEUSEZTATZEKO PROPOSAMENA.

Udalbatzarrak, 2010eko maiatzaren 26an egindako bilkuran, HIE 26 Elorreta eremuan zuzkidura-alojamenduak sustatzeko Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarekin lankidetzaren hitzarmena sinatzea erabaki zuen.

Hitzarmen hori 2010eko ekainaren 9an sinatu zen.

Eta orain, igarotako denbora eta oraindik etxeak eraiki daitezkeen lurzatiak, eta baita amaitu gabeko eraikinak ere, daudela kontuan izanik, ez da egoki ikusten aipatutako etxebizitzak egiteko lur gehiagorik okupatzea.

Hirigintza eta Mugikortasuna batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Rafa Bernal jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Aurrekarietan esandako arrazoiengatik, HIE 26 Elorreta eremuan zuzkidura-alojamenduak sustatzeko Etxebizitza, Herrilan eta Garraio Sailarekin 2010eko ekainaren 9an sinatutako hitzarmena deuseztatzea.

BIGARRENA.- Jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan, erabaki hau jakinaraztea Eusko Jurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.

Eta beste gairik ez dagoenez, 18:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1º.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se da cuenta de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el 16 de marzo de 2018 haciéndose entrega de un copia del extracto de las mismas. De forma expresa se da cuenta de las Resoluciones por las que se aprueban el expediente de modificación de créditos N° 2 y N.º 3.

2º.- RECURSO DE REPOSICIÓN INTERPUESTO CONTRA ACUERDO DE SANCIÓN POR FALTA DE INSCRIPCIÓN DE DE PERRO POTENCIALMENTE PELIGROSO EN EL REGISTRO MUNICIPAL.

Instruido y tramitado expediente sancionador contra Iñigo Olazabal Cerrillo por la falta la inscripción del perro de su propiedad, raza STAFFORDSHIRE BULL TERRIER, en el Registro Municipal de Animales Potencialmente Peligrosos de este municipio, por acuerdo del Pleno de fecha 28 de marzo de 2017 se le impuso una sanción de 300 euros, como autor de la infracción administrativa *grave* tipificada en el art. art. 13.2.c) de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos y en el art. 20.4 del Decreto 101 /2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Con fecha 23 de junio de 2017 Iñigo Olazabal Cerrillo interpuso recurso de reposición alegando que, si bien no presentó toda la documentación en plazo, tenía parte presentada y que al final presentó la que le faltaba y que por dicho motivo solicita se le rebaje la sanción impuesta.

Vista la propuesta elevada por el órgano instructor y resultando que del expediente tramitado se deduce que:

1.- Iñigo Olazabal Cerrillo fue requerido por sendos escritos notificados el 18 de enero de 2016 y el 26 de setiembre de 2016 a que procediese a presentar la documentación preceptiva para obtener la licencia administrativa para la tenencia de animales potencialmente peligrosos y la inscripción en el Registro Municipal.

2.- Iñigo Olazabal Cerrillo hizo caso omiso a ambos requerimientos, motivo por el que se le incoó el expediente sancionador y se le impuso la sanción.

3.- Las manifestaciones hechas por el inculpado no desvirtúan los hechos probados, ni el fundamento de la imputación ni su responsabilidad. Como propietario de un perro de raza potencialmente peligrosa estaba obligado desde que se hizo con la propiedad del mismo a obtener la preceptiva licencia y a proceder a la inscripción del animal en el Registro Municipal, obligaciones que omitió a pesar de ser requerido al efecto y por las que se le imputó la infracción por la que ha sido sancionado.

Vistos los antecedentes mencionados, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Gobierno y Finanzas, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

PRIMERO.- DESESTIMAR el recurso interpuesto por Iñigo Olazanal Cerrillo por las razones expuestas en los antecedentes de este acuerdo y, en consecuencia, RATIFICAR LA SANCIÓN de 300 euros impuesta por acuerdo del Pleno de fecha 28 de marzo de 2017 como autor de la infracción administrativa *grave* tipificada en el art. art. 13.2.c) de la Ley 50/1999, de 23 de diciembre, sobre el Régimen Jurídico de la Tenencia de Animales Potencialmente Peligrosos y en el art. 20.4 del Decreto 101 /2004, de 1 de junio, sobre tenencia de animales de la especie canina en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

SEGUNDO.- La sanción impuesta es firme y deberá hacerse efectiva por el sancionado en el plazo máximo de 1 mes a contar desde el siguiente al de la notificación de la presente, transcurridos el cual, sin haber satisfecho la misma, se exigirá en vía ejecutiva.

TERCERO.- Notificar al sancionado la presente resolución para su conocimiento y efectos oportunos, con indicación de contra la misma podrá interponer RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo de Donostia- San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, contados también desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, a tenor de lo establecido en los arts. 8 y 46 de la Ley 29/1998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

3º.- BAJA DE DERECHOS RECONOCIDOS EN EJERCICIOS ANTERIORES.

Dada cuenta del expediente tramitado por el Servicio de Recaudación para la aprobación de la baja de derechos pendientes de cobro de ejercicios anteriores por prescripción, declaración de créditos incobrables, improcedencia, duplicidad y otras causas.

Por unanimidad se acuerda elevar al Pleno la siguiente propuesta de acuerdo:

PRIMERO.- Aprobar los expedientes colectivos de baja de derechos pendientes de cobro por los conceptos, sujetos pasivos e importes contenidos en las siguientes tablas y que a continuación se resumen:

- Baja de derechos pendientes de cobro **por créditos incobrables**: 52.670,02 €.

| 17/10/01 etik 17/12/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|--|----------------|-------|-----------------|------------------|-----------------|------------------|--------------------|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2009 | 39 A028678 810Q | 11.060,01 | 2.212,00 | 13.272,01 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2010 | 30 A028678 820R | 11.060,01 | 2.212,00 | 13.272,01 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2011 | 31 A028678 820Q | 10.885,84 | 2.177,16 | 13.063,00 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| E20873709 | JARDUERA ENPR. | 2012 | 32 A028678 820P | 10.885,84 | 2.177,16 | 13.063,00 | KOBRAEZIN KREDITUA |
| GUZTIRA | | | | 43.891,70 | 8.778,32 | 52.670,02 | |

- Baja de derechos pendientes de cobro **por prescripción**: 12.609,33 €.

| 17/10/01 etik 17/12/31 BITARTEAN AURREKONTUEI APLIKATUTAKO UDAL ZERGEN BAJAK | | | | | | | |
|--|---------------|-------|-----------------|---------------|--------------|---------------|-----------------|
| IFZ | KONTZEPTUA | URTEA | LIKIDAZIOA | KUOTA | ERREKARGOA | GUZTIRA | ZERGATIA |
| A20171328 | OHZ:HIRILURRA | 2011 | 3U 0034602 110F | 200,26 | 40,05 | 240,31 | PREZKRIZIOA.GEA |
| 16.300.924L | OHZ:HIRILURRA | 2011 | 3U 5180042 110H | 196,13 | 39,22 | 235,35 | PREZKRIZIOA.GEA |
| GUZTIRA | | | | 396,39 | 79,27 | 475,66 | |

-
-
-

| IFK | KONTZEPTUA | URTEA | ZENBATEKOA | ZERGATIA |
|---------------------------|---|--------------|---------------------|------------------------------|
| 44.683.483 A A31178486 | HIRIGINTZA LIZENTZIA (ZERGA+TASA) ZIGORRA KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK | 2012 | 10,62 | PRESKRIPZIOA |
| 72.723.973 C | 1-9 SAN PEDRO BERREURBANIZATZEA KIROLDEGIKO KANTXAREN ALOKAIRUA | 2012 2013 | 11.903,80 219,25 | PRESKRIPZIOA PRESKRIPZIOA |
| GUZTIRA | | | 12.133,67 | |

- **Baja derechos pendientes de cobro por improcedencia: 222,23 €**

| IZENA | KONTZEPTUA | URTEA | ZENBATEKOA | ZERGATIA |
|----------------|---|-------|---------------|------------------|
| F20025292 | HIRIGINTZA LIZENTZIA TASA. 63 ERREZIBOA | 2015 | 22,27 | 2017AN KOBRATUTA |
| F20025292 | HIRIGINTZA LIZENTZIA TASA. 49 ERREZIBOA | 2016 | 199,96 | 2017AN KOBRATUTA |
| GUZTIRA | | | 222,23 | |

SEGUNDO.- Dar traslado del presente acuerdo a los servicios económicos municipales de Intervención y Tesorería para que se proceda a dar de baja en las cuentas contables y de recaudación las deudas declaradas prescritas o anuladas por otras causas.

4º.- CONCESIÓN DE SUBVENCIÓN PARA LA APERTURA DE NUEVO ESTABLECIMIENTO COMERCIAL. (alquiler)

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión de fecha 28 de marzo de 2017, adoptó el acuerdo de aprobar inicialmente las Bases para regular las ayudas a la apertura de nuevos establecimientos comerciales o de servicios mediante la puesta en valor de locales vacíos .

Publicadas dichas bases en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 12 de abril de 2017 y, pasado el plazo de exposición pública sin que se presentaran alegaciones, fueron aprobadas definitivamente sin necesidad de nuevo acuerdo.

Al amparo de lo previsto en el art. 7 de las BASES, la Alcaldía, por Resolución de fecha 31 de mayo de 2017, convocó dichas ayudas.

Dentro del plazo establecido al efecto, Isabel Quelle Añel solicitó ayuda para el pago del precio de alquiler de local donde ha emplazado la Academia 2KAIN.

Visto y analizado el expediente tramitado al efecto, donde obra el informe emitido por la técnica del área con la propuesta de la cantidad de ayuda a conceder, la Comisión Informativa de Desarrollo Económico eleva propuesta.

De conformidad con la propuesta elevada y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: Conceder a Isabel Quelle Añel la ayuda que a continuación se detallará para el pago del alquiler del local donde ha emplazado la academia 2KAIN :

- Primer año, desde el 1 de abril de 2018 a 31 de marzo de 2019: 75€/mes

-Segundo año, desde el 1 de abril de 2019 a 31 de marzo de 2020: 50 €/mes

Segundo: De conformidad con las Bases que regulan la convocatoria, la persona beneficiaria estará obligada a:

1. Cumplir los objetivos y/o realizar las actividades que fundamentan la concesión de la subvención.
2. Justificar ante el Ayuntamiento de Eskoriatza la realización de las actividades y el cumplimiento de la finalidad determinantes en la concesión o disfrute de la subvención, así como el cumplimiento de los requisitos y condiciones para ello.
3. Someterse a las actuaciones que el Ayuntamiento pueda llevar a cabo a fin de comprobar el cumplimiento de los requisitos para concesión de subvenciones.
4. Comunicar al Ayuntamiento de Eskoriatza, en su caso, la concesión de otras subvenciones que financien las actividades subvencionadas.
Esta comunicación deberá hacerse tan pronto como se tenga noticia de ello, y en todo caso, con anterioridad a la justificación de la utilización dada a los fondos recibidos desde el Ayuntamiento.
5. Estar al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social, así como con el Ayuntamiento de Eskoriatza.
6. Conservar durante al menos cinco años los documentos justificativos de la utilización de los fondos recibidos.
7. Obtener cuantas autorizaciones sean precisas para el desarrollo de la actividad subvencionada, y cumplir sus determinaciones.
8. Comunicar al órgano concedente la modificación de cualquier circunstancia que hubiese sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.
9. En caso de ayudas para el alquiler, presentar trimestralmente los documentos del pago realizado a la propietaria del local. Una vez presentados los documentos, el Ayuntamiento procederá al pago de la subvención en la cuenta corriente que haya indicado la empresa.

Tercera: La subvención correspondiente a los primeros TRES meses se abonará tras la presentación de los documentos que acrediten que se ha hecho efectivo el pago del alquiler a la propiedad. Las subvenciones siguientes se abonarán trimestralmente , una vez presentados los documentos del pago efectivo del alquiler correspondiente a dichos tres meses, y tras acreditar que se encuentra al corriente en sus obligaciones fiscales y con la Seguridad Social, así como con el Ayuntamiento de Eskoriatza

El pago se hará efectivo en la cuenta que se haya facilitado y en un plazo máximo de un mes, a contar desde la presentación de la documentación en su totalidad.

Cuarto: Aprobar el gasto y ordenar el pago de las mensualidades correspondientes al ejercicio 2018 (675 euros) con cargo a la partida 0500.481.431.00.01 del vigente presupuesto, y las mensualidades correspondientes a los años 2019 (675 euros) y 2020 (150 euros) con cargo al presupuesto de los ejercicios correspondientes.

5.º.- PRORROGA DEL CONTRATO DE ADJUDICACIÓN DEL DERECHO DE EXPLOTACIÓN DEL SERVICIO DEL BAR-SALÓN DEL HOGAR DEL JUBILADO DE OLAZAR.

Mediante acuerdo plenario de fecha 16 de febrero de 2012 se adjudicó a Juan Luis Eraña Altuna el contrato de utilización y explotación del servicio de Bar-Salón del Hogar del Jubilado de Eskoriatza. El plazo inicial de duración del contrato era de 2 años.

De acuerdo con la cláusula tercera del contrato, dicho plazo era prorrogable por un periodo de de 2 años, de manera sucesiva, hasta un total computando plazo contractual y prórrogas, de 20 años . La prórroga debe ser acordada expresamente de acuerdo con el art. 23.2 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.

Por parte del servicio encargado de la gestión del contrato, se emite informe en que se considera conveniente la segunda prórroga del contrato por el plazo mencionado,

Asimismo, consta la conformidad del contratista con la prórroga propuesta.

De acuerdo con al artículo citado, la prórroga la acordará el órgano de contratación, siendo en este caso el Pleno.

De acuerdo con lo anterior, de conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- Prorrogar el contrato de utilización y explotación del servicio de Bar-Salón del Hogar del Jubilado de Eskoriatza por un segundo periodo de DOS ÑOS , de acuerdo con lo establecido en la cláusula tercera del contrato y en el art. 23 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público

6º.- PROPUESTA DE RESCISIÓN DE CONVENIO DE COLABORACIÓN CON EL GOBIERNO VASCO PARA LA CONSTRUCCIÓN DE VIVIENDAS OCUPACIONES EN LA SUPERFICIE DESTINADA A EQUIPAMIENTOS DE ELORRETA.

Con fecha 26 de mayo de 2010, el Pleno del Ayuntamiento acordó formalizar un convenio de colaboración con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes para la promoción de alojamientos dotacionales en el área AIU 26 Elorreta.

Con fecha 9 de junio de 2010 se formalizó dicho convenio.

Ahora, teniendo en cuenta el tiempo transcurrido, así como que existen en la actualidad parcelas en las que todavía se puede edificar e incluso edificios sin terminar, no se considera acertado ocupar más suelo para la ejecución de dichas viviendas.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Urbanismo y Movilidad y con la abstención de Rafa Bernal y el voto favorable del resto de los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

PRIMERO: Rescindir, por los motivos indicados en en los antecedentes, el convenio suscrito con el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transporte del Gobierno Vasco en fecha 9 de junio de 2010 para la promoción de alojamientos dotacionales en el área A.I.U. 26 “Elorreta”.

SEGUNDO: Para su conocimiento y efectos oportunos, notificar el presente acuerdo al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:45 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.